

2008ko otsailaren 26an, ASTEARTEA, arratsaldeko ZORTZITAN, Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan egingo den Ohiko Batzarrera deitzen zaitugu, ondoren aipatzen diren gaiak aztertzeko.

EGUNEKO AZTERGAIAK.

- 1.- 2.008KO URTARRILAREN 29KO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.
- 2.- ZENBAIT DEKRETUREN BERRI EMATEA.
- 3.- 16.SEKTOREKO "KAMIO"-KO PLAN PARTZIALARI HASERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKOA BADA.
- 4.- LANBERRI ETA ZABALBERRI ALDEKO LURSAILAREN ENKANTEAREN AZTERKETA.
- 5.- ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA.
- 6.- ZENBAKIT DIRULAGUNTZEN AZTERKETA.
- 7.- ALKATEGOAREN INFORMAZIOA.
- 8.-GALDE ERANTZUNAK.

Aduna, 2008ko otsailak 21.

ALKATEA.

2.008KO OTSAILAK 26.

OHIKO PLENOA.

Bertaratuak:

**ALKATEA
ZINEGOTZIAK:
Bertaratuak:**

Arantza Aburuza Alkorta.

Jose Antonio Irazu Mendizabal.
Miren Aburuza Alkorta.
Josu Amilibia Alsua.
Iñaki Aristeta Gurrutxaga.
Iker Iturrioz Lekuona.
Ainara Iturrioz Lekuona.

Bertaratu gabea:

Iñor ez.

IDAZKARIA:

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta zortziko otsailaren hogeita seiko hogeitau ordu eta hamar minutu izanik, Adunako Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

**LEHENENGO PUNTUA:
2.008KO URTARRILAREN 29KO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA
BADA.**

Alkateak 2008ko urtarrilaren 29ko aktaren berri ematen du eta aurrean aipaturiko zinegotzietan aho batez onartzen dute.

**BIGARREN PUNTUA:
ZENBAIT DEKRETUEN BERRI EMATEA.**

Alkateak azken Plenoa egin zenetik ondoren aipatzen diren Dekretuak eman dituela jakinerazten du:

1.- M^a Angeles Amenabar Zabalak elizako teilatutik eroritako teilaren ondorioz tarteratutako ondare arloko aurretiatzko erreklamazioa onartzea (18/2008 Alkatetza Ebazpena).

2.- Xabier Begiristain Arrutiren izenean tramitatzen ari den argi eta soinu ekipoen alokairu eta instalazio iharduerarako espedientearen barruan, iharduera baimena ematea (19/2008 Alkatetza Ebazpena).

3.- Construcciones Lanteguiko Xabier Aramburu Irazu Jaunari Uparan Industrieguneko lursailan egiten ari den obrak geldiarazteko eta legeztatzeako eskaera (20/2008 Alkatetza Ebazpena).

4.- Distribuciones Lopetegi, S.L-ri 8067-FXM ibilgailuaren zergaren diferentzia ordaintzeko idatzia (21/2008 Alkatetza Ebazpena).

5.- Daniel Barcos, S.A-ri 1516-FYH ibilgailuaren zergaren diferentzia ordaintzeko idatzia (22/2008 Alkatetza Ebazpena).

6.- Ainhoa Elduaen Intxausti Anderea Elbarrena, 13 Leku-Eder-en erroldatzeko baimena (23/2008 Alkatetza Ebazpena).

7.- Aizpea Belasko Elduaen Elbarrena, 13 Leku-Eder-en erroldatzeko baimena (24/2008 Alkatetza Ebazpena).

8.- Andoaingo La Salle Berrozpe ikastetxera 1990 eta 1992 urteetan jaiotako en zerrenda bidaltzea (25/2008 Alkatetza Ebazpena).

9.- Juan Goikoetxea Albisu Jaunari eskoilera egiteko eta bide publikoaren egoera bermatzeko jarritako abala itzultzea (26/2008 Alkatetza Ebazpena).

10.- Ioseba Aburuza Goikoetxea Jaunari Amalkor 3ko etxebizitzaren ordezkartzan goiko sarrerako burnizko atea aldatu eta etxe ondoko bidea konpontzeko baimena ematea (27/2008 Alkatetza Ebazpena).

11.- Hormigones Goiherriko, Bi S.L-ri 9.sektoreko urbanizazio proiektuko lanak bermatzeko jarritako abala itzultzea (28/2008 Alkatetza Ebazpena).

12.- Haur, nerabe eta gazteentzako iharduerak sustatzeko Udalari kontu korrontean sartutako 1.277,15 € Aiztondori itzultzea (29/2008 Alkatetza Ebazpena).

13.- Juan Iraola Elizondo Jaunari Igota ur biltegiaren ondoan betelana egiteko baimenik ez ematea (30/2008 Alkatetza Ebazpena).

14.- Jose Mari Zavala Echeverria Jaunari Zabale Txiki etxean berriztapen obrak egiteko baimena ematea (31/2008 Alkatetza Ebazpena).

15.- Ana Maria Gazquez Lopezosa Anderea Elbarrena 10b Gaintza Behekoa etxean erroldatzeko baimena ematea (32/2008 Alkatetza Ebazpena).

16.- Rafael Lopez Galiano Jauna Elbarrena 10b Gaintza Behekoa etxean erroldatzeko baimena ematea (33/2008 Alkatetza Ebazpena).

17.- Juan Jose Arregi Etxabe, S.A-k Uparan Industriguneko 2.zenbakidun pabiloian papel eta plastikozko hondakinen birziklapen iharduera legeztatzeke espedienteari hasera ematea (34/2008 Alkatetza Ebazpena).

18.- Elias Galatas Agirreurreta Jaunari Pake baserria berritzeko emandako habitabilitate baimena (35/2008 Alkatetza Ebazpena).

19.- Jose Joakin Azkue Arruabarrena Jaunari Jose M^a Arruti Goenaga Jaunaren izenean Kamio hirigintza unitatean dagoen saila banantzeko baimena ematea (36/2008 Alkatetza Ebazpena).

20.- Fermin Aranburu Barriola Jaunari 18. alorra, Erribera, Hiritartzeko Jarduketa Programaren tramitazioa aldi baterako eten dela jakineraztea (37/2008 Alkatetza Ebazpena).

21.- Ingenieria y Montajes, Aduna, S.L-ri Uparan Industriguneko 11.zenbakian ura hartzeko baimena ematea (38/2008 Alkatetza Ebazpena).

22.- Juan Jose Arregi Etxabe, S.A-ren izenean Zubitxiki Industriguneko 2.zenbakian tramitatzen ari garen ihardueraren inguruko idatzia jakineraztea (39/2008 Alkatetza Ebazpena).

HIRUGARREN PUNTUA:

6.SEKTOREKO “KAMIO”-KO PLAN PARTZIALARI HASERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKOA BADA.

Jose M^a Azkue Gaztañaga Jaunak, 2.008ko urtarrilaren 10ean, Adunako 16. Alorreko Plana, “Kamio”, aurkeztu du Udaletxean, honek hasierako onespena eman diezaion. Agiria, Alorreko jabe nagusienek izenpetua dago.

Pedro Izaskun arkitektoak, alor horri buruzko txosten teknikoa egin zuen 2008ko urtarrilaren 15ean. Txosten horren arabera, bidezkoa da agiri horri hasierako onespena ematea; baina hala ere, behin-behineko onespenerako aurkeztu beharreko agirian egin beharko diren zuzenketak adierazten ditu.

Egun horretan bertan, bidezko txosten juridikoa egin zen; eta hori ere, dokumentuari hasierako onespina ematearen aldekoa da.

Hori horrela, txosten horien kopiak erantsi zaizkio honako erabaki honi.

Kontuan hartuta txosten teknikoan adierazitako zuzenketak ez direla funtsezkoak, bidezkoa da agiriari hasierako onespina ematea. Hala ere, agiri berria aurkeztu beharko da behin-behineko onesperako; eta agiri horretan, jendaurreko informazio-alditik ondoriozta daitezkeen xedapenez gain, txosten teknikoan adierazitakoak jaso beharko dira. Funtsean, honako hauexek:

- Sistema lokalen sareko ekipamendu pribatuko erabilera, egoitza erabilerarekin bateragarri egin beharko da a.1.1 lurzatian.
- Esparruaren ezaugarri orografikoak direla-eta, hiritartze elementuak ez datoz bat gaur egun indarrean dauden irisgarritasun baldintzekin, ezaugarri horien kariaz ezinezkoa baita konponbide zentzuzkoagoak diseinatzea. Beraz, txostena Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluari igorri beharko zaio nahitaez.
- Egoitza erabilerako a.1.1 lurzatian sistema lokalen sareko ekipamendu pribatua ezartzerakoan, erdisotoko solairua ere aintzat hartu beharko da, Udalak etorkizunean izan ditzakeen premiei erantzungo zaion moduan.
- Egoitza erabilerako a.1.1 lurzatia ez da, derrigorrez, proiektu bakar baten bidez garatu beharko.
- Alorreko Planean, prebentziozko neurriak edota neurri zuzentzaile egokiak aurreikusi beharko dira, industrialdeen ondoan dagoen eremu honetan gerta litekeen zarata arintzearen. Hau da, fatxadak eta leihoak, baldintza akustikoak aintzat hartuz tratatzea aurreikusiko da, eraikinen barruko eremuak ere zarataren arabera banatzea, eta abar.

Alorreko Planaren espedientea tramitatzerakoan, Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 legeak, 95. artikuluan ezarritakoa bete behar da. Eta, artikulua horren arabera, Udalak, agiriari hasierako onespina eman ondoren, jendaurrean ikusgai jarriko du 20 eguneko epean; era berean, argitara emango du aldizkari ofizialean eta prentsan.

Adierazitako guztia aintzat harturik eta gaia botutara jarri ondoren, Udalbatzak, aho batez, zera erabaki du:

LEHENA: Adunako “Kamio” 16 Alorreko Planari hasierako onespina ematea erabaki du, dokumentu honetako xedapenen atalean aurreikusitako baldintzen pean.

BIGARRENA: Erabakia jendaurrean ikusgai jartzea, 20 eguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta prentsan azkenekoz argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

**LAUGARREN PUNTUA:
LANBERRI ETA ZABALBERRI ALDEKO LURSAILAREN ENKANTEAREN
AZTERKETA.**

Lanberri eta Zabalberri aldeko lursailen enkanteari dagokienez, Udalbatzak aho batez, zera erabaki du:

1.- 2.008, 2.009 eta 2.010 urteetarako, 2005, 2.006 eta 2.007ko prezio berberak proposatzea.

2.- Martxoaren 9an, eguadiako 12:00-etan Udaletxeko Pleno Aretoan izango den subastarako deia herritarrei egitea eta etxeetara bando bat bidaltzea.

**BOSTGARREN PUNTUA:
ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA.**

1.- Berasarte Berri, S.L.-k Lardi auzoan gas propanoko gasifikazio lanak egiteagatik aurkezturiko 7.274,24 €-tako faktura aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, faktura hau onartzea eta ordaintzea erabaki du.

2.- Gipuzkoako Urak, S.A-k 2.008ko Azpiegitura Finantzaketa Kanonaren lehenengo zatiaren inguruan aurkezturiko 7.490,45 €-tako faktura aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, faktura hau onartzea eta ordaintzea erabaki du.

**SEIGARREN PUNTUA:
ZENBAIT DIRULAGUNTZEN AZTERKETA.**

1.- Andra Mari ikastolako lehendakariak 2.007ko abenduaren 5ean datorren maiatzaren 25ean Zornotzan ospatuko den ibilaldia festarako aurkezturiko dirulaguntza eskaera aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, 100 €-tako dirulaguntza ematea erabaki du.

2.- Tolosaldea Sahararekin-ek 2.007ko azaroaren 27an sahara herriarekiko elkartasuna lortzeko aurkezturiko dirulaguntza eskaera aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, 100 €-tako dirulaguntza ematea erabaki du.

3.- Kontseiluak 2007ko uztailaren 5ean 2.007 urterako aurkezturiko dirulaguntza eskaera aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, dirulaguntza ez ematea erabaki du.

4.- Gizakia Helburuk 2.007ko azaroaren 27an aurkezturiko dirulaguntza eskaera aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, 200 €-tako dirulaguntza ematea erabaki du.

5.- Localiak 2.007ko abenduaren 18an aurkezturiko dirulaguntza eskaera aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, dirulaguntza ez ematea erabaki du.

6.- Euskal Eskola Publikoak 2.007ko abenduaren 18an aurkezturiko dirulaguntza eskaera aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, dirulaguntza ez ematea erabaki du.

7.- Galtzaundik 2.007 urterako aurkezturiko dirulaguntza eskaera aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, dirulaguntza ez ematea erabaki du.

8.- Lokarrik 2.007ko uztailaren 23an aurkezturiko dirulaguntza eskaera aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, dirulaguntza ez ematea erabaki du.

9.- Euskadiko Zeliakoen Elkartek 2.007ko urriaren 30ean aurkezturiko dirulaguntza eskaera aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, dirulaguntza ez ematea erabaki du.

10.- Udako Euskal Unibertsitateak 2.008ko urtarrilaren 22an aurkezturiko dirulaguntza eskaera aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, dirulaguntza ez ematea erabaki du.

11.- Kilometroak 2.008ko ekonomi taldearen izenean 2.008ko urriaren 5ean Iruran ospatuko den Kilometroak festarako aurkezturiko dirulaguntza eskaera aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, 150 eurotako laguntza ematea erabaki du.

12.- Herri Urratseko Lehendakariak 2.008ko urtarrilaren 23an Senperen ospatuko den Herri Urrats festarako aurkezturiko dirulaguntza eskaera aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, 200 eurotako laguntza ematea erabaki du.

13.- Adunako Herri Eskolak 2.008 urtean zehar sortutako beharrei aurre egiteko aurkezturiko dirulaguntza eskaera aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, 1.500 eurotako dirulaguntza ematea erabaki du, beti ere, gastaturiko dirua Udaletxean justifikatu beharko delarik.

14.- Euskal Herriko Gazteriaren Kontseiluak 2.008ko urtarrilaren 3an aurkezturiko dirulaguntza eskaera aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, dirulaguntza ez ematea erabaki du.

ZAZPIGARREN PUNTUA:
ALKATEGOAREN INFORMAZIOA.

Alkateak azken Plenoa egin zenetik gertatu diren gai interesgarrienen eta hartutako erabakien berri ematen du eta Udalbatza jakinaren gainean geratzen da.

Beste Aztergairik gabe, hogeit hamar ordu eta berrogeita hamabost minutu direnean, Batzarra amaitu da, eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.